

# Ezin dute euskara ikasi



UXUE APAOLAZA LARREA

**A**ma da, Perukoa, eta ezingo luke euskara zerotik ikasten doan hasi, egunkarietan irakurri dugun moduan (gezurra zen): hemen agian bai, gurean udalak bermatzen duelako eskubide hori (Hernani). Etortzen bazait ikasturtea amaitutakoan (etorri zaizkidan moduan), alabarekin udan zer egin dezakeen galdezka, eskolan nahiko ondo ibili arren, andereñoak esan diolako oporretan euskara galtzeko arriskua duela, eta ikasten jarraitu nahi duelako, erantzun beharko diot...

Marokotik iritsi eta pare bat hilabetera etortzen bazaizkit ama-umea zer egin dezaketen galdezka, institutuan hasiko delako eta euskaraz jakin ezean ez duelako ezer ulertuko, erantzun beharko diot...

Udan (udalari esker, ez ezer planifikaturik dagoelako Euskal Herrian) euskaraz nolabait ikasten aritutako ikaslea trenean topatzen badut Hondurastik iritsi eta zazpi hilabetera, eta galdezen badiot zer moduz institutuan, ea zerbait ulertzen duen, nola egiten dituen azterketak, erantzungo dit ezetz, ez duela ezer ulertzen, baina, tira, batzuetan azterketak gaztelaniaz egiten uzteko "mesedea" egiten diotela. Eta hizketan ari garela, galdetzen badit non ikas dezakeen euskaraz, erantzun beharko diot...

Erantzun beharko diet ezin dutela ikasi, ez dagoela ezer beraientzat, eta arbelaren aurrean norbait hizketan ikusten badute, helduren bat, begiratzeko adi, eta egiteko baietz-baietz buruarekin. Eta arbelaren aurrean dagoena kontzientziario hitzaldi bat ematen ari bazaie (*dibersin*, pentsatzen dut) euskara ikastearen beharraz eta garrantziaz, hizkuntza gutxituak gora eta behera (mundu zabaleko euskal etxeetan euskaraz gain entzuten diren horiek, ez?), jasotzeko besoa, eta esateko hizlariari kontuz ibiltzeko, agian guztiz kontzientzia daitekeela, eta euskara ikasi nahiko duela, behar duelako, eta ea beharrak eskubide ez ote diren, ez ote den norbait bere eskubidea urratzen ari. Galde dezala, eta galdetzen diet nik ere hor goikoei, hauteskundera kanpainak behekoak inoiz ikusi gabe egiten dituztenei: kontzientziatuta gaude, orain zer? Ezin dute euskaraz ikasi.

Utzi jendea kontzientziatzeari, jarri baliabideak. ●



ADUR

## Euskara

EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du Donostiako bi udaltzain postutarako euskarazko B2 profila eskatzen zuen lan deialdia. "Euskaldunen eskubideak urratzen dituen" epai berri honen aurrean, hainbat eragilek salatu du "euskaldunen aurkako oldarraldiak" ez duela etenik.

## Kutsadura

Billboko Udalak autoak gutxitu nahi ditu erdigunean, aire kutsadurak behera egin dezan. Horretarako, hainbat hiritan abian jartzen ari diren neurri bera hartu du: gehien kutsatzen duten autoei erdigunera sarrera debekatzea. Talde ekologistek neurria kritikatu dute, besteak beste "kutsu klasista" duelako.

## Hondakinak

Eusko Jaurlaritzak ez du "inolako arau hausterik atzeman" Ekondakinek Zubietako erraustegitik Artaxoako zabortegira 2022 eta 2023 urteetan bidalitako milaka tona lixibiatuetan. Hala, ez du sozietate publikoa zigortuko, Nafarroako Gobernuak eskatu bezala.